

Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

ALONSOTEGIKO UDALA

IRAGARPENA, Alonsotegiko lurralde-esparruan, Doctor Madinabeitia enparantza eta bere inguruaren antolamendurako, Barakaldoko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualerako proposamen berriaren hasierako onespenera buruzkoa. 5630

Xedapen Orokorrak

KULTURA SAILA

2037

260/1995 DEKRETUA, maiatzaren 2koa, Euskadiko «Gazte-Txartela/Carnet joven» eratu eta arautzeko dena.

Autonomi Elkarteko Estatutuaren 10.39. atalaren bidez, erantzukizun eta ardura osoa ematen zaio Euskal Autonomi Elkarteari honako arlootan: Komunitate Garapena, Emakumezkoen Babesa, Haur eta Gazteen-tzako Politika eta Hirugarren Adina.

1981eko martxoaren 23ko Dekretuaren bidez, berriz, Transferentzietarako Batzorde Mistoaren erabakia onartu zen Estatuak zenbait esparrutan, besteak beste, Gazterian eta Suspertze Soziokulturalean zerbitzuak Euskal Autonomi Elkartearen esku utz zitzaizkien irailaren 26ko 3069/1980 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Gazteri arloko zereginak, ardurak eta eginkizunak Kultura Sailari dagozkio urtarilaren 3an onartutako 1/1995 Dekretuaren arabera, Dekretu horren bitartez ezarri baitziren Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren Sailak eratu, kendu eta aldatzeko moduak baita bakoitzari zegozkion zereginak eta iharduera esparruak ere.

Beste alde batetik, gazteriaren arlo horretan eskuratutako eginkizunak eta ahalmenak garatu eta burutzeko ardura Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekin-tzarako Zuzendaritzak du bere esku, halaxe adierazita baitago ekainaren 11n Kultura Sailaren egitura organiko arautuz onartutako 367/1991 Dekretuaren 14. atalean.

Gaur egun gauza jakina da gehinetan gazteek ahal-bide ekonomiko handiegirik ez dutela izaten eta, horrek, zaildu, eragotzi, oztopatu eta, zenbaitetan, era-

Otros Anuncios Oficiales

AYUNTAMIENTO DE ALONSOTEGI

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la nueva propuesta de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Barakaldo en el ámbito territorial de Alonsotegi, para la ordenación de la plaza Doctor Madinabeitia y su entorno en Alonsotegi. 5630

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2037

DECRETO 260/1995, de 2 de mayo, de creación y regulación del «Gazte-Txartela/Carnet joven» de Euskadi.

El artículo 10.39 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco atribuye competencia exclusiva a la Comunidad Autónoma en materia de Desarrollo Comunitario, Condición Femenina, Política Infantil y Juvenil y de la Tercera Edad.

Mediante el Decreto de 23 de marzo de 1981, se aprobó el acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias en los términos establecidos por el Real Decreto 3069/1980, de 26 de septiembre, sobre traspaso de servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia, entre otras, de Juventud y Promoción Sociocultural.

La esfera de atribuciones relativa al ámbito de la juventud se encuentra afecta al Departamento de Cultura, en virtud del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Por su parte el desarrollo y ejecución de dichas competencias en el ámbito específico de la juventud se materializa e incardina dentro de nuestra organización institucional a través de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura, tal y como se dispone al efecto en el artículo 14 del Decreto 367/1991, de 11 de junio, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Cultura.

En nuestros días es un hecho evidente, sobre todo en momentos de crisis y paro, que la falta de posibilidades económicas de los y las jóvenes dificulta y, en algunos

bat galerazi egiten die gazteei gizartean integratzeko posibilitatea eta, beraz, kultura munduan sartzeko bidea ere bai. Egoera hori areagotu egiten da, gainera, krisialdietan eta langabezia handia dagoen garaietan.

Eusko Jaurlaritzaren helburuetako bat Euskadiko hiritarren bizimodua eta bizitza kalitatea hobetzea da.

Hori lortzeko, behar-beharrezkotzat jotzen da Herri Administrazioaren maila guztietan eta gizartea osatzen duten talde, elkarte eta erakundeetan batera ihardutea eta elkarlanean aritzea.

Horrenbestez, Kultura Sailak Gazte-Txartelaren erabilera suspertu nahi du, gazte guztiek diru aldetik abantailak izan ditzaten bai ondasun kultural eta materialean, bai zerbitzuetan, bai euren bizimodua hobetu ditzaketen gainerako gaietan ere.

Ekimen hau eta European, inguruko Herrialdeetan zein Estatuko beste batzuetan egiten direnak ere berdinak dira eta, horrenbestez, ezinbestekoa da haiekin hitzarmenak egitea, gazteek txartela leku gehiagotan erabiltzeko aukera izan dezaten eta eskaintzen zaizkien abantailak eta onurak ere ugariagoak eta zabalagoak izan daitezen.

Dekretu honen bitartez, Euskal Autonomi Elkarteak Gazte-Txartelaren zerbitzuaren funtzionamendua arautzen da, txartel horren bitartez eta gazteen benetako ahalmen ekonomikoa aintzat izanik, kultura, kirol, kontsumo eta aisialdirako ondasun eta zerbitzuak gazteentzako eskuragarriago izan daitezen.

Horrenbestez, Kultura sailburuak proposaturik eta Gobernu Batzordeak 1995eko maiatzaren 2an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren

XEDATU DUT:

1. *atala*.— Dekretu honen xedea, Euskadiko «Gazte-Txartela/Carnet joven» eratu eta arautzea da. Eusko Jaurlaritzak Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren bitartez eskainiko die zerbitzu hori Euskadin bizi diren gazteei, era horretara, hainbat abantaila ekonomiko emanez, gazteek zerbitzu eta ondasunak errazago eskuratzeko modua izan dezaten.

2. *atala*.— Gazte-Txartela agiri pertsonala da eta, beraz, gazte bakoitzak berea erabili beharko du beti. Eusko Jaurlaritzak emango die agiri hori horretarako eskabidea egiten duten gazteei, bete beharreko baldintzak bi hauek izanik: 15 urtetik 25era bitarteko gazteak izatea eta Euskal Autonomi Elkartean bizi izatea.

3. *atala*.— Gazte-Txartelak bi urteko balioa izango du eta epea, beti, dagokion ihardunaldia abenduaren 31n bukatuko da. Europako Gazte-Txartelen Elkartek ezarritako epeei egokitzearen edo beste era bateko arrazoiak direla eta, Txartela erabiltzeko epean aldaketarik izanez gero, Kultura sailburuaren agindu baten bidez ezarriko dira epe berriak.

4. *atala*.— Gazte-Txartela eskuratzeko ordaindu

casos, impide su proceso de integración social y su consiguiente acceso al mundo de la cultura.

Uno de los objetivos de la acción del Gobierno Vasco es el aumento de la calidad de vida de los/las ciudadanos/as de Euskadi.

Para conseguirlo se considera imprescindible la actuación y la cooperación de todos los niveles de la Administración Pública y de los diversos estamentos, colectivos y entidades que configuran la sociedad civil en todos los ámbitos.

En consecuencia, el Departamento de Cultura impulsa el Gazte-Txartela/Carnet Joven para que los/las jóvenes puedan beneficiarse de las ventajas económicas en la utilización de los bienes culturales y materiales, de los servicios y de todos aquellos aspectos que contribuyan a aumentar su calidad de vida.

Este tipo de iniciativas son comunes a las que se desarrollan en los países de nuestro entorno europeo así como en otras comunidades autónomas del Estado, por lo que será necesario establecer convenios para la utilización recíproca del carnet con el fin de ampliar el número y el espectro de ventajas ofrecidas a los/las jóvenes.

Por el presente Decreto se regula el funcionamiento del Servicio Gazte-Txartela/Carnet Joven de la Comunidad Autónoma de Euskadi con el fin de facilitar el acceso del sector juvenil a bienes y servicios culturales, deportivos, recreativos y de consumo haciéndolos así más asequibles a su real poder adquisitivo.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 2 de mayo de 1995,

DISPONGO:

Artículo 1.— Es objeto del presente Decreto el establecimiento y regulación del funcionamiento del Gazte-Txartela/Carnet Joven de Euskadi como un servicio ofrecido por el Gobierno Vasco a través de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura, a los/las jóvenes residentes en Euskadi para posibilitar su acceso a bienes y servicios mediante la articulación de determinadas ventajas económicas.

Artículo 2.— El Gazte-Txartela/Carnet Joven es un documento de carácter personal e intransferible expedido por el Gobierno Vasco a favor de los/las jóvenes con edad comprendida entre los 15 y 25 años y residentes en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco que así lo soliciten.

Artículo 3.— El período de validez del Gazte-Txartela/Carnet Joven será bianual, culminando, en todo caso, al 31 de diciembre del ejercicio correspondiente. Las modificaciones del plazo de validez del mismo por adecuación a los plazos que fije la Asociación Europea de Carnets Joven o por cuestiones de operatividad se fijará mediante Orden de la Consejera de Cultura.

Artículo 4.— El precio de expedición del Gazte-Txar-

beharko prezioa erraz ordaindu ahal izateko modukoa da. Ordaindu beharreko diru-kopuru hori, abenduaren 28ko 337/1990 Dekretuan ezarrita egoteaz batera, Euskal Autonomi Elkarteke Administrazioaren Tasak eta Prezio Publikoak finkatuz maiatzaren 31n onartutako 3/1990 Legean ezarritako arauetan oinarriturik dago.

5. *atala*.— Gazte-Txartela eskuratu edo, bestela, berritu nahi izanez gero, bi gauza besterik ez da egin behar: Txartela banatzen duten erakundeei eskatu eta horretarako ezarriko den diru-kopurua ordaindu. Era horretara, besterik gabe, eskuratu edo berrituko da Txartela.

6. *atala*.— Gazte-Txartela zerbitzuari lotuta abantailak eskaini nahi dituzten erakunde publiko zein pribatuak, Euskal Autonomi Elkartean iharduteaz gainera, laguntza agiri bat sinatu beharko dute Kultura Sailarekin. Agiri horretan adieraziko da zehatz-mehatz txartelaren bidez zein ondasun eta zerbitzu izango diren merkeagoak eta gazteei eskainitako deskontuetan zein baldintza jartzen diren. Programa honetan parte hartu nahi duten erakunde eta dendetan Kultura Sailak banatuko duen ezaugarri edo bereizgarriaren bat izango dute denek ondo ikusteko moduan.

7. *atala*.— Eusko Jaurlaritzak egin beharreko tramite guztiak egingo ditu Gazte-Txartela Europako Gazte-Txartelen Elkarteke kide izateko. Modu horretara, Gazte-Txarteldunek elkarte horretako gainerako kideek dituzten eskubide berberak izango dituzte.

8. *atala*.— Gainerakoetako eta Lisboan 1987ko uztailaren 1ean egindako Nazioarteko Protokoloari atxikitako Herrialdeetako Txartelek ere izango dute balioa Euskal Autonomi Elkartean.

Dena den, aipatutako bailo hori, beti ere, Dekretu honi jarraituz emandako Gazte-Txartelarekin gainerakoek erakusten duten elkarrekikotasunaren arabera izango da.

GEHIGARRIZKO XEDAPEN BAKARRA

Dekretu hau garatu eta gauzatu ahal izateko hartu beharreko erabaki guztiak hartzeko ahalmena izango du Kultura sailburuak.

ALDI BATERAKO XEDAPEN BAKARRA

Dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita ematen diren Gazte-Txartelek, 1996ko abenduaren 31ra arteko balioa izango dute.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Honako Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko maiatzak 2.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

tela/Carnet Joven es un precio público, fijado por Decreto 337/1990 de 28 de diciembre, y está sujeto a lo dispuesto en la Ley 3/1990, de 31 de mayo, de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y a la citada disposición normativa.

Artículo 5.— La adquisición y, en su caso, renovación del Gazte-Txartela/Carnet Joven se producirá automáticamente mediante su solicitud por el interesado ante las entidades distribuidoras y el pago de la cantidad que se fije al efecto.

Artículo 6.— Podrán ofertar ventajas generales al amparo del servicio Gazte-Txartela / Carnet Joven, las entidades públicas o privadas que desarrollen actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi y suscriban el correspondiente documento de adhesión con el Departamento de Cultura especificando en él los bienes y servicios afectados y las condiciones especiales de descuento que en su virtud se ofrezcan a los jóvenes. Tales entidades se identificarán por el distintivo que al objeto se establezca por el Departamento de Cultura.

Artículo 7.— El Gobierno Vasco acometerá cuantas gestiones fueren oportunas para su admisión como miembro de la Asociación Europea de Carnets Joven, de tal forma que se reconozcan, de manera recíproca iguales derechos que a los/las poseedores/as de los diferentes carnets miembros de dicha Asociación

Artículo 8.— Tendrán validez en la Comunidad Autónoma de Euskadi los carnets expedidos en otras Comunidades Autónomas y en los Países adheridos al Protocolo Internacional de Lisboa de 1 de julio de 1987.

La citada validez quedará en todo momento supeditada al respeto al principio de reciprocidad para el Gazte-Txartela/Carnet Joven expedido en virtud del presente Decreto.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Se faculta a la Consejera de Cultura para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

Las Gazte-Txartela/Carnet Joven que se expidan a la entrada en vigor del presente Decreto, serán válidos hasta el 31 de diciembre de 1996.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de mayo de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.